


artikulu nabarmenak
artículos destacados




urtarrila/enero




SERRANO, Raquel. [El futuro del trabajo y de la tecnología: investigación prospectiva en el marco del Proyecto Millennium](#). *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria = revista de pensamiento e historia*. Bilbao: Fundación Sabino Arana, 2016 (53), 60-66. ISSN 1578-0058.

Millennium Proiektua munduaren etorkizuna ikertzeko pentsamendu-sare bat da, eta, besteak beste, adimen artifizialak eta beste teknologia batzuek eta haien sinergiekin lanean eta gizartearen duten eragina aztertzen du. Horren ondorioei buruz badaude iritzi onak (sormen handiagoa, lanik gabe bizi ahal izatea...) eta ez onak (egiturazko langabezia). Ondorio horiek era guztietako lanbide-kualifikazioetan eta jardueretan izango dute eragina. Proiektu horren barruan, inkesta bat egin zaie Ipar Amerikako eta Europako mundu-mailako 300 adituri, eta, inkesta horren emaitzen arabera litekeena da munduko langabezia % 25ean kokatzea. Eragin txar horri aurre egiteko, I+G estrategiak eta langileen partaidetza erabil litezke, eta, nolabait arintzeko, gutxieneko diru-sarreraren politikak beharko lirateke.



AYESTARÁN, Sabino. [¿Cómo podemos promover la empleabilidad de las personas jóvenes?](#) *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria = revista de pensamiento e historia*. Bilbao: Fundación Sabino Arana, 2016 (53), 60-66. ISSN 1578-0058.

Enplegarritasuna pertsona bakoitzak lanerako duen potentzialtasuna da. Testuinguruaren arabera da: egungo testuinguruan, non kalitatea eta berrikuntza nahasten baitira, gaitasun giltzarriak dira sormena, ekintzaitza, partaidetza, negoziatzea, lankidetzak eta espezializatzea. Enplegarritasun hori lortzeko, hauek behar dira: gune fisikoa aldatzea: plataforma digitalak ezinbestekoak dira informazioa ezagutzak partekatu behar diren bitarteko; gune psikosozial bat: lankidetzan eta gardentasunean oinarritutako harreman berriak; eta kultura-gune bat: etika eta gardentasuna.



ALUSTIZA, Adolfo. [El desempleo juvenil en Euskadi: análisis y propuestas](#). *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria = revista de pensamiento e historia*. Bilbao: Fundación Sabino Arana, 2016 (53), 60-66. ISSN 1578-0058.

Euskadiko gazteen langabezia kezkarria da, eta horren arrazoiak bat lan-eskaintzaren eta gazteen gaitasun-profilaren arteko aldea da. Lanpostu-kopuruak eta profilak, bai eskaintza beharrezko lanpostuarenak bai betetzen duen pertsonarenak, baldintzatzen dute kontratazioa, eta biak ala biak zailak dira zehazten. Espainiako enplegu-politika aktiboen egungo ereduak arazo larriak ditu: diru-laguntzetan oinarritzen da, plangintzarik gabekoa da, eta unean uneko egoerari begiratzen dio egiturazkoari begiratu ordez. Eusko Jaurlaritzak akats horiek gainditzeko saiatzen da, ekonomia suspertzeko programen bitartez eta talde jakinen kontratazioa sustatuz, besteak beste gazteena. Profilen eta eskaintzen arteko aldea gutxitzea lortu nahi da, enplegu-eraketaren ibilbide pertsonalizatuak eraikitzen lagunduko duen ezagutzaren bitartez. Prestakuntza arautu orokorrak gain, enplegurako prestakuntza ere behar da; izan ere, horri esker doitu daiteke profila eta, horren ildotik, alternantziako prestakuntza duala bide eraginkorra da benetako enplegarritasunera iristeko.